

aek
23.korrika



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus



Denok Baionarat, 23. KORRIKAre azken jaira!

Baionako Askatasun plazan bukatuko da KORRIKAre 23. edizioaren 2.500 kilometroko ibilbidea, hilaren 24an. Lapurdiko hiriburu osoa zeharkatu ondoren, Santizpirita zubitik sartuko da karabana koloretsua. Amaiera-ekitaldia bertan izanen da, eta, segidan, festarako tenorea helduko zaie bertaratutakoei.

Hilaren 24ko bukaera-egun handia aurkezteko, KORRIKAre arduradunek prentsa-agerraldia egin dute gaur, euskaldunentzako gune biziki ikoniko batean: Baionako Patxa plazan. Deialdia egin dute Euskal Herriko txoko guztietako jendea bertara dadin, eta, era berean, ustea adierazi dute hitzordu ederra izanen dela Baionako herritarrentzat nahiz eragileentzat, euskararen aldeko lanean segitzeko akuilua.

Amaiera-ekitaldia Askatasun plazan izanen da, herri-etxearen (udaletxearen) parean. Lekukoa 12:30erako iritsiko dela aurreikusita dago, azken kilometro nazionalak egin ostean. Une horretan jakinen dugu nor den lekukoaren barruko mezu sekretuaren egilea, eta, noski, baita mezuaren beraren edukia ere. Ekitaldi nagusiaren aurkezlea Pantxika Maitia izanen da, Kanaldude telebista-katearen aurpegi ezaguna.

Bestalde, azken eguneko arduradun Ibai Capot Thornary-k azaldu du "kasik dena prest dela" Baionako jairako eta ospakizunak egun osoa iraunen duela. Festa "handia" prestatu dute auzolanean, "KORRIKAK merezi duen modukoa"; elkarlanean aritu da, halaber, Baionako eta Ipar Euskal Herri osoko antolaketa-taldea: ekitaldiak hainbat gunetan egonen dira sakabanatuta, publiko-mota guztiei begira, egitarauan Iparraldeko kultur eragileen parte hartzea lehenetsita. Haien artean Ibil Bedi, Anje Duhalde, Patxaranga elektrotzaranga eta Pontx pailazoa izanen dira, besteak beste.

Jean René Etchegaray Baionako alkateak ere parte hartu du prentsaurrekoan. Nabarmendu nahi izan du, edizio honetan bereziki, hiri osoa aritu dela buru-belarri KORRIKAre alde.

ARABA

Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus

aek
23.korrika



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

korrika.eus



Amaitzeko, bi ohar garrantzitsu: batetik, AEK-k berriazko protokoloa ezarri duela martxoaren 24a eraso sexista, arrazista eta homofoborik gabeko eguna izan dadin; bestetik, ahal den neurrian, garraio publikoa erabiltzeko gonbita. Hala ere, autoz joanez gero, antolatzaileek Ametzondo merkataritza-gunean aparkatzeko gomendioa bota dute; bertatik autobusa hartu ahal izanen da, 5 minutuan Baionako erdigunera heltzeko. Horrez gain, bakoitzak bere edalontzia ekar dezala, eta txartelak (tiketak) bankuko txartelarekin ere erosten ahalko direla.

Informazio gehiagorako, ikus korrika.eus web-orriko azken jaiaren atal berezia:
<https://www.korrika.eus/eu/bukaera-eguna>

Herri-bazkarian jateko txartelak (plater nagusia, zikiroa), helbide honetan eros daitezke:
<http://www.denda.korrika.eus/>

ARABA

Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus